

AURKEZPENA

Hazten goazen heinean, gauzak aldatzen joaten dira eta horrekin batera, gure bizimoduan ezinbestekoa da zenbait aldaketa nahiz aurrerakuntza egitea. Ba al dakizu arropa lisatzen? eta arropa-garbigailu bat jartzen? Nahiz eta jende askok uste mundu guztiak dakiela hori egiten, egia esan gero eta gazte gutxiagok dakite ezinbesteko gauza horiek egiten.

Hau baieztatzeko, ikerketa txiki bat egitea erabaki dugu. Azken urteetako ikerketek erakusten dute DBH4ko nerabe askok ez dituztela etxeko oinarrizko zereginak modu autonomoan egiten. Gainera, aditu askoren arabera, etxeko lanetan parte hartze eskasak autonomia, erantzukizuna eta helduarorako prestakuntza falta ekar ditzake. Horregatik, egoera larri baten aurrean gaudela uste dugu, eta beharrezkotzat jotzen dugu gazteen artean etxeko oinarrizko trebetasunak lantzea eta sustatzea.

Zenbat leku ezagutzen dituzu arazo hori konpontzen laguntzen dituztenak? Guk behintzat bat ere ez. Argi daukagu, ez bada ezer aldatzen etorkizun batean arazo larri bat biziko dugula, inorrek ez duelako jakingo ezer egiten eta teknologiengandik gidatuko garela bakarrik.

Gu Marina Gorospe, Maria Ibarzabal, Ibon Izagirre eta Alaine Martin gara, eta Urretxu-Zumarraga ikastolako batxilergoko lehenengo mailan gaude. Gure ideia, Iboni esker bururatu zitzaigun, izan ere, arazoak edukitzen zituen etxean sukaldatzeko, arropa lisatzeko edota arropa-garbigailua jartzeko.



Gure proposamena arazo honi irtenbide bat aurkitzeko tailer bat prestatzea izan da, tailer honetan gazteei erakutsi nahi diegu nola izan independenteagoak eta beraien kabuz etxeko gauzak egiten hastea.

Azkenean, gure helburu nagusia gazteei laguntzea da, eta kontzientziaztea beraiek ere etxeko lanetan parte hartu behar dutela eta ikastea beharrezkoa dela.